



1. ALDIKO PROBLEMAK

1.- KORRIDOREA

Korridore batean baldosa-ilara bat ikusi dugu. Baldosa bakoitzak ondorengo ereduari jarraitzen dion kolorezko zati bat dauka





Baldosa bakoitzaren aldea 10 cmkoa baldin bada eta guztira 237 baldosa baldin badaude:

- Nolakoa izango da azken baldosa?
- Zenbat neurtuko du guztira azal koloredunak?
- Gehien jota, zenbat baldosa margo genitzake 1 m^2 margotu ahal izateko baino ez bagenu pinturarik ?

2.- TRIANGELUA ZATITZEN

ABC triangeluaren BC aldea 20 cmkoa da. Triangelu honetan, ondoko irudietan ikus daitezenez:

- AB aldea 3 zati berdinetan zatitzen duten BC aldearekiko bi segmentu paralelo marraztu ditugu. Zein da bi segmentu horien luzeren batura?




- AB aldea 8 zati berdinetan zatitzen duten BC aldearekiko 7 segmentu paralelo marraztu ditugu. Zein da 7 segmentu horien luzeren batura?

3.- TAULA MOZTEN

7x7 laukitxoko taula karratu bat dugu. Zati ezazu 6 zatitan ondoko bi baldintza hauek betetzen direlarik:

- i) 5 ebaki zuzen, koadrikularen lerroei jarraituz egin behar dituzu.
- ii) Sei zatien bidez (denak erabiliz, bata bestearen gainetik gainezarri barik ez eta hutsuneak sortu barik) beste hiru karratu egin daitezke.



4.- ZINEMAN

Ana, Beatriz, Carmen eta Diana zinemara joan dira eta lau ondoz ondoko aulkitan eseri dira. Anak Beatrizen ondoan eseri nahi du eta Carmenek ez du Dianaren ondoan eseri nahi.

- a) Zenbat era ezberdinetan eseri daitezke?
- b) Bosgarren lagun bat, Elena, baletor, eta honek Dianaren ondoan eseri nahi izango balu, zenbat era ezberdinetan eser litezke bost lagunak?

